

# EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO OSASUNGINTZA

Alkorta I., Balagué L., Barandiaran M., Etxeberria A., Idarreta I., Mariñelarena E.,  
Moreno M., Perez I., Rotaecche R., Sagarzazu J.

## EBIDENTZIAN OINARRITUTAKO OSASUNGINTZA

I.ALKORTA  
L.BALAGUÉ  
M.BARANDIARÁN  
A.ETXEBERRIA  
I.IDARRETA  
E.MARIÑELARENA  
M.MORENO  
I.PEREZ  
R.ROTAECHE  
J.SAGARZAZU.  
Tfnoa: .943.524300.

Posta Elektroniko: [juappant.@apge.osakidetza.net](mailto:juappant.@apge.osakidetza.net).

### Sarrera

Erabaki klinikoak hartzeko orduan, dagoen ebidentziarik hoberena modu argi eta zentzudunean erabiltzeari deritzogu Ebidentzian Oinarritutako Osasungintza (EOO).

Klinikoek eta gestoreek hartutako erabakiak askotan ez dira ebidentzia hoberenean oinarritzen, batzuetan praktika klinikoa ebidentziaren kontrakoa izan delarik (lidokainaren erabilera miokardioko infartu akutuan adibidez). Bestalde, egunero hartzen ditugun erabakietan, pertsonen itxaropen eta usteak eta inguruaren ezaugarriak zerikusi handia dute. Horrek praktika klinikoaren aldakortasuna eragiten du.

EOOk informazio-iturrien aldaketa bat proposatzen du, jatorrizko ikerlanak, azterketa sistematikoak eta praktika klinikoaren gidaliburuak erabiltzea, eta hori guztia maisutza klinikoarekin uztartzea.

**Gure esperientzia:** 1997. urtearen inguruan Gipuzkoako lehen mailako atentzioko langile batzuk bide ezberdinetatik EOOren berri izan genuen. Geroztik kideen arteko informazioa, zalantzak eta aukerak elkartrukatu eta EOOK duen filosofiarekin bat eginez, aldizka biltzen hasi ginen. Sei hilabete lehenago, antzeko talde bat lanean hasia zen Donostia Ospitalean eta hasieran bat egin genuen beraiekin. Talde zabal honetatik talde txikiagoak sortu ziren, espezialitate ezberdinen inguruan. Era honetan jaio zen EOOren lehen mailako taldea, mediku, erizain eta farmazialariek osatutakoa.

### Helburuak

1) Egunerokotasunean aldaketak bultzatzea, bi abiapuntu jarraituz:

- Egunero gauzatzen dugun lana ez da erabat zientzian edo frogatan oinarritzen.
- Gure galderei erantzuna emateko behar ditugun frogak eskuratu ditzakegu.

2) EOOren irakaskuntzan parte hartzea.

3) EOO lehen mailako langileentzat eguneroko tresna bezala bultzatzea.

4) Web orrialdea sortzea, taldeak ebidentzian oinarrituz egindako txostenak lehenbailehen argitara eman eta zabaltzeko.

5) EOOren terminologia, baliabideak eta lan-emaitzak euskaratzea.

### **Metodoak**

Taldearen lan-metodoa EOOk laburbiltzen duen bera da:

- Egunerokotasunean ikusten ditugun arazo klinikoak antzeman.
- Arazo klinikoa galdera egituratu bat bezala definitu.
- Bilaketa bibliografiko sistematikoa eta egokia egin.
- Aurkitutako lanak bere baliagarritasun, egiatasun eta erabilgarritasun klinikoaren arabera kritikoki aztertu.
- Emaitzen laburpena egin:

CATaren bitartez (CRITICAL APPRAISAL TOPIC, kritikoki landutako gaia), erantzuna artikulua bakarrean aurkitzen denean.

Txostenaren bitartez, artikulua bat baino gehiagotan oinarritzen denean.

### **Emaitzak**

Irakaskuntza:

EOO zabaltzeko lehen mailako atenzioan antolatutako hainbat ikastarotan parte hartu dugu (antolatzaile, irakasle edo laguntzaile gisa).

Argitalpenak:

Hipertentsio Arterialari buruzko gidaliburuan parte hartu.

OSATZEN aldizkarian hainbat artikulua.

INFAC aldizkarian bi zenbaki.

CATak:

2001ean Gipuzkoako Web orrialdea sortu zen, ordura arte Gipuzkoako EOO talde ezberdinek egindako lanak zabaltzeko helburuarekin. Gaur egun CATak <http://www.mbe.i2000.es> helbidean kontsulta daitezke. 104 CAT daude, gaiaren arabera sailkatuta.

2003an, Osatzen-ek bere Web orrialdea sarean jartzen duenean, gure taldearen lanak eskuragarri egongo dira bertan.